

# ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Argazki zahar hau Udaletxian dago eta Xabier Zelaia eskerrak eskuratu dogu.

## Zazpibideta

**O**rain baiño kotxe gutxiago ebillen Txaketa aldian fotografia hau atara zanian. Itxura honekin 1955 ingururarte iraun eben Oñatiko bidekurtze inportante honek, baiña iturrura fandako emakumiaren jantzixa eta beste detalle batzuk kontuan izanda, gerra aurreko argazkixa dala esan geinke. Txikitoneko balkoian agiri dan makilla luzia batzokiko ikurriñiari eusteko baldin bada, 1930 inguruko edo akaso lehenagoko bistia izan leike, sasoi haretan nazionalisten lokala etxe horretan egon zan eta.

Paraje hau beti izan da Oñatiko bihotza: parrokiako aldia herriko plazia zan, Zarateneko etxe-aurrekaldia berdura-plazia,

Kale zaharretik Kale barrira pasabiderik zuzenena hortitzen eguen eta hainbat kale eta kantoi bertan alkarretan ziran. Horretzengatik da, jakina, Zazpibideta edo Sieteventos. Plazuelia, dana dala, majo aldatu zan orain dala 35 bat urte egin ziran obrakin: iturrixa gorago eruan zan, arbolak eta plazatxua zihero murriztu ziran eta kalietako harrizak, gehixenak behintzat, orduantxe kendu zittuain. Arretaz begiratu ezkerre, badira beste aldaketa batzuk be: Galartzaneke miradoria, Gipuzkuanari alde horretatik falta xakon hirugarren pisua eta Zarateneke etxe parian ikusten dan karrua. A zelakotxe trafikua! ■

J.E.

## M. AGUIRREURETA

### OKINDEGIA

P. Berezano, 21  
Tfnoak. 78 23 45 - 78 22 54  
OÑATI

Araba Etorbidea, 4  
Tfnoa. 79 01 32  
ARRASATE  
9,00 - 13,00  
16,00 - 20,00



Olakua, 14  
Tfnoa. 71 60 00  
OÑATI

16,00 - 20,00

### ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

**HURBILDU ZAITEZ GURE  
BULEGOETARA!**

## LARDI

### NESKA ETA MUTIL

JANTZI  
DENDA

Atzeko kale, z/g.  
Tfnoa. 71 61 08  
OÑATI